

# EUSKAL PEZETA ISOLATUAK



**Nagore Irazustabarrena  
Uranga**


@irazuastabarrena

Bilbo, 1936ko urria. Jose Antonio Agirre lehendakari izendatu eta bi astera, Eliodoro de la Torre buru zuen Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailak dekretu bat onartu zuen, abuztuan Bizkaiko Defentsa Batzordeak onartutako bera: billete-txeketegiak jaulkitzeko agindua eman zuten, Espainiako bankuan zituzten funtsen babesean.

Diruaren zirkulazioa bermatu nahi zuten, gerra eremuetan ohikoa denez dirua altxortzeko joera baitzegoen.

Honela zioen dekretuaren zati batek: "Beraz, altxortzea ezinbestean zuzendu behar da konponbide heroikoen bidez, batetik, egoismo nabarmen eta zentzugabeenaren ezkutalekuetan kapitala metatu dadin saihesteko eta, bestetik, gure herriko altxor emankorrek lurraldeko mugetatik ihes egin ez dezan, beste eskualde batzuk gure lurralde zuku finantzarioaren bizkar elikatzen".

EAJko eta Frente Popularreko ordezkariak osatutako gobernuak halaberrez eskuratu zuen Espainiako Errepublikak aurrez ukatutako auto-gobernu maila. Autonomia estatutua 1936ko urrian bertan onartzea lortu zuen; gerra hasita, gobernu zentral errepublikanoak euskal lurraldeen babesa bermatu nahi zuen. Gipuzkoatik Asturiasera bitartean, kostaldeko lerroa errepublikarren esku zegoen oraindik, baina beraien eremu nagusitik erabat



1937an Eusko Jaurlaritzaren aginduz egindako 50 pezetako billetea, atzealdean arrantzaleak portuan dituen. 25 pezetako billeteak, adibidez, labe garaiak irudikatzen zituen.

isolatuta. Eta 1937ko martxoan arte, frankistek erasoari berrekin arte, frontea egonkortuta egon zen. Egoera aproposa Jaurlaritzak jardura laburra baina bizia izan zezan. Esku-dirua jaulkitzeaz gain, pasaporteak banatu zituen, justizia sistema berrantolatu zuen, atzerrian ordezkariak jarri zituen abian, 40.000 soldaduko armada antolatu zuen...

Bederatzi banketxe eta kutzak jaulkitako hasierako txeketegi-billeteak kalitate eskasekoak ziren eta 1937ko api-

rileko dekretu batek aginduta, billete berriak egin ziren, atzealdean euskal eszena tipikoak (eta topikoak) zituztenak, baita kalitate handiko nikelzko bat eta bi pezetako txanponak ere.

Bilbo ekainean erori zen, eta hiriarekin batera, lehen Jaurlaritzaren lorpen gehienak. Baina gorde diren "euskal" billete batzuk zein higituta dauden ikusita, bi hilabete eskas horietan behintzat beren funtzioa bete zutela eta zirkulazio bizian egon zirela esan daiteke. ■



## 1929ko krakeko mito bat leihotik behera

1929ko urriaren 24an burtsak Wall Streeten lurra jo zuenean, inbertitzaile mordo batek beren burua etxe-orratzetako leihoetatik bota eta, literalki, lurra jo zuten haiek ere. Hori da, behintzat, gugana iritsi den irudia, plutokratak euri tantak bailiran erortzen zirela zerrutik eta espaloiak gorpu trajedunetz jositako zeudela. Baina datuek diote suizi-

dio-tasak ez zuela nabarmen gora egin gainbeheraren ondorioz eta egun haie-tan Manhattanen bi pertsonak soilik egin zutela beren buruaz beste leihotik behera kalera jauzi eginda: Hulda Borowski bulegariak eta G.E. Cutler enpresariak, eta ez heriotza batek ez besteak ez omen zuten lotura zuzenik izan finantza-porrotarekin. ■